



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Hirigintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Urbanismo

1995eko urriaren 17ko 132/1995 FORU DEKRETUA, Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza Saileko araudi organikoa onesten duena (1995eko azaroaren 17ko BAO, 220 zk.koa) "HIPERTESTUA"

ARAUDI ARAUPETZAILEA

Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza Saileko Egitura Organikoaren Araudia

I. TITULUA

Xedapen Orokorrak

Kapitulu bakarra

1. artikulua.- Hirigintza Saila
2. artikulua.- Bizkaiko Foru Aldundia
3. artikulua.- Atxikipenak
4. artikulua.- Eskumenari buruzko abiaburu orokorrak

II. TITULUA

Egitura Organikoa eta funtzioak

1. Kapitulu

Egitura Organikoa

5. artikulua.- Osaketa

2. Kapitulu

Funtzioak

6. artikulua.- Foru Diputatua
7. artikulua.- Zuzendari Nagusia
8. artikulua.- Zerbitziburua eta Atalburua

III. TITULUA

Funtzio Egitura eta Eskurantzak

1. Kapitulu

Estructura Funcional

9. artikulua.- Antolamendua

2. Kapitulu

Eskurantzak

10. artikulua.- Hirigintzako Teknika Arloko Zerbitzua
11. artikulua.- Plangintza Atala
12. artikulua.- Hirigintzako Lege Arloko Zerbitzua
13. artikulua.- Hirigintza Arauen Betearazte, Kontsulta eta Agiritegiaren Atala
14. artikulua.- Atal Jurudiko-administratiboa
15. artikulua.- Lurralde Argibide eta Azterketarako Zerbitzua
16. artikulua.- Dokumentazio eta Kartografiaren Zabalkunde Atala
17. artikulua.- Ingurunearen Azterketa eta Argibideetarako Atala

18. artikulua.- Zerbitzu Orokorren Zerbitzua

19. artikulua.- Aurrekontu eta Gai Orokorren Atala

Lehen Xedapen Erantsia

Bigarren Xedapen Erantsia

Xedapen Indargabetzailea

Azken Xedapena

ARAUDI ARAUPETZAILEA

Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza Saileko Egitura Organikoaren Araudia

I. TITULUA

Xedapen Orokorrak

Kapitulu bakarra

1. artikulua.- Hirigintza Saila.

Hirigintza Saila Bizkaiko Foru Aldundiko organo nagusietakoa da eta hirigintza eta Lurraldearen antolamendu gaietan indarrean dagoen antolamendu juridikoaren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioari aintsitetsitako eskumenak egikaritzeko dago eraturta.

2. artikulua.- Bizkaiko Foru Aldundia.

Aurreko artikuluan xedatutakoa gora-behera, Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremuaren barruan, ondokoak dira Foru Aldundiaren berariazko eskumenak:

- a) Maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak, Euskadiko Lurraldearen Antolamenduari buruzkoak, Lurrealde Historikoen Foru Organoei eratziki dizkien ahalmenak egikaritzea.
- b) 50.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrien plangintza orokorraren agerkaiak ebatzea eta berauek berrikustea, uztailaren 26ko 1/1992 Legegintzazko Errege Dekretuaren arabera.
- c) Duten interesa dela eta, Foru Diputatuak horrela iritzita Foru Aldundiak ebatzi behar dituen gaiak.

3. artikulua.- Atxikipenak.

Bizkaiko Hirigintza Batzordea izeneko Batzordea Hirigintza Sailari atxikitzen da. Batzorde hori Foru Aldundiaren organo aholkulari eta korodinatzailea da zertarako eta lurraldearen antolamendu eta hirigintza gaietan eratxikitzen zaizkion eskumenak eta ahalmenak burutzeko.

4. artikulua.- Eskumenari buruzko abiaburu orokorrak.

1.- Eskumena ukaezina da eta berariaz atxikita daukaten administrazio organoek egikaritzeko dute, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 44 eta 45 artikuluetan ezarritako eskuordetze kasuetan izan ezik.

2.- Organo nagusiek beheragoko hierarkiako organoiei ohi denez edo eskuordetzez dagokien gai bat galdeka dezakete eurentzat eta organo horien jarduketak berrikus ditzakete.

3.- Kudeaketaren hegalpea, sinaduraren eskuordetzea eta ordezkotzak ez dute ekartzen eskumenaren titulartasunaren aldaketarik.

II. TITULUA

Egitura Organikoa eta funtzioak

1. Kapitulu

Egitura Organikoa

5. artikulua.- Osaketa.

1.- Hirigintza Sailak hierarkikoki hurrengo unitate organikoetan egituratzen da:

- a) Sailburua den Foru Diputatu.
- b) Zuzendaritza Nagusia.

c) Zerbitzuak.

d) Atalak.

2.- Foru Diputatua Saileko norbazarreko organo gorena da eta bertako organo guztiak ber menpean daude.

3.- Zuzendaritza Nagusia zuzenean eta hierarkikoki Foru Diputatuaren menpean dagoen unitate organikoa da eta bera osatzen duten unitate administratiboen zuzendaritzaz, kontrolaz eta koordinazioaz arduratzen da.

4.- Zerbitzuak jardunbiderako barru organoak dira eta beren eskumenak sartuta dauden Zuzendaritza Nagusiaren funtzioen arlo bat dira.

5.- Atalak barru organoak dira, atxikita dauden Zerbitzuaren jarduketaren arlo bati dagozkion lanak eta espedienteak instruitzeko eta tramitatzeko atazak burutzen dituztenak.

6.- Foru Dekretuen bidez, Araudi Organiko hau garatuz Bulegoak sortu ahal izango dira.

2. Kapituluia

Funtzioak

6. artikulua.- Foru Diputatua.

Hirigintza Sailburua den Foru Diputatuak, Foru Aldundiko kide den aldetik dagozkion eskurantzaz gain, ondokoak egikaritzako ditu: duen eskumenari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Antolakuntza, Araubide eta Jardunbideari buruzko 3/1987 Foru Arauaren 39. artikuluan eta gainerako baterako xedapenetan aintzatesten zaizkion ahalmenak.

7. artikulua.- Zuzendari Nagusia.

Zuzenean Sailburuaren menpean dagoela, Zuzendari Nagusiak ondorengo ahalmenak izango ditu:

- a) Zuzendaritzari atxikitako zerbitzuak zuzendu eta kudeatzea, eta, duen izendapenaren arabera, bere eskumena diren gaiak ebaztea.
- b) Foru Diputatuari, honek komeni dela irizten dien kasuetan, laguntza teknikoa ematea.
- c) Zuzendaritza Nagusiari loturiko bulegoen ikuskapena eta jagotza bereganatzea.
- d) Zuzendaritzaren jarduketaren proiektuak gertutzea.
- e) Zuzendaritzaren Aurrekontu Orokorren anteproiektua gertutzea.
- f) Ebazpen proposamenak gertutzea eta Diputatuari egitea.
- g) Bere kargu dauden bulegoen barru araubideaz baliatzea, horretarako lan metodoak eta antolakuntza hobetzeko berrikuntzak proposatuz.
- h) Zuzendaritzaren unitate administratiboetan destinatutako langileriaren zuzendaritza egikaritzea, Sailburua den Foru Diputatuaren Burutza nagusiari kalte egin gabe.
- i) Bere eskumenari dagozkion gaietan xedapen administratiboak ematea; xedapen horiek, kasuen arabera, xedapen zirkular edo instrukzioen tankera hartuko dute.
- j) Sailburua den Foru Diputatuak eskuordeztutako ahalmenak eta Sailburuak berak zuzenean bere esku utzitako beste batzuk egikaritzea. Ejercer las facultades delegadas por el Diputado Foral Titular del Departamento y aquellas otras que el mismo directamente le encomiende.

8. artikulua.- Zerbitziburua eta Atalburua.

1.- Zerbitzu eta Ataleko Burutzek, zerbitzua banatuta dagoen atalaren edo funtzio mulzoren barruan eta nagusien gidalerroei jarraituz, izaera nagusiko azterketa, aholularitza eta proposamen atazak ez ezik beren titulazioak horretarako gaitzen dituen jarduerak zuzeneko egitea ere burutuko dituzte.

2.- Zerbitzu eta Ataleko Burutzak, beren funtzioen barruan, Zerbitzu eta Ataletan sartuta dauden unitate administratiboen lanaren erabaki, zuzendaritza, burutzapen eta kontrolaren erantzule zuzenak dira.

III. TITULUA

Funtzio Egitura eta Eskurantzak

1. Kapitulu

Funtzio Egitura

9. artikulua.- Antolamendua.

1.- Hirigintza Saila, bere Sailburuaren zuzendaritzapean eta bere eginbeharrak hobeto betetzeko, Hirigintza Zuzendaritza Nagusia izeneko Zuzendaritza Nagusi bakarrean egituratzen da.

2.- Hirigintza Zuzendaritza Nagusia honela egituratzen da:

- Hirigintzako Teknika Arloko Zerbitzua:
 - Plangintza Atala.
- Hirigintzako Lege Arloko Zerbitzua:
 - Hirigintza Arauen Betearazte, Kontsulta eta Agiritegiaren Atala.
 - Atal Juridiko-administratiboa.
- Lurralde Argibide eta Azterketarako Zerbitzua:
 - Dokumentazio eta Kartografiaren Zabalkunde Atala.
 - Ingurunearen Azterketa eta Argibideetarako Atala.

3.- Zuzenean Foru Diputatuaren menpean dagoela, Zerbitzu Orokorren Zerbitzua eratu da, Aurrekontu eta Gai Orokorren Atala izeneko Atal bakarrean egituratuta dagoena.

2. Kapitulu

Eskurantzak

10. artikulua.- Hirigintzako Teknika Arloko Zerbitzua.

1.- Hirigintzako Teknika Arloko Zerbitzuari ondokoa dagokion unitate administratiboa da: batetik, plangintzako hirigintza jarduketari buruzko espedienteak tramitatzea eta, bestetik, hirigintza gaien Bizkaiko Foru Aldundiari atxikitako eskumenekin zerikusia duten azterketa, analisi, kudeaketa eta aholkularitza teknikoan atazak. hirigintza eta lurralde antolamendurako agerkaiak. Ataza horiek ekimen, idazkuntza, betearazpen, kudeaketa, fiskalizazio eta informazio ahalmenei ez ezik, lurralde eta hirigintza antolamenduaren agerkaiak onesteko ahalmenei ere badagozkie.

2.- Era berean, Hirigintzako Teknika Arloko Zerbitzua Zerbitzu Orokorren Zerbitzuaren bidez tramitatu eta kudeatu behar diren unitate administratiboaren gai orokor guztiak sustatzeko eta informatzeko ardura duen organoa da. Horretarako, unitate administratiboaren gai orokortzat hurrengoak hartzen dira: langileak, kontratazio administratiboa, gastu eta sarreraren aurrekontua burutzea eta betearaztea eta Zerbitzuaren beraren hirigintzako funtzio teknikoaren arloan hertsiki sartuta ez diren beste batzuk.

3.- Hirigintzako Teknika Arloko Zerbitzuaren menpean dagoela, Plangintza Atala eratu da.

11. artikulua.- Plangintza Atala.

1.- Plangintza Atala Sailaren Arlo Tekniko eta Juridikoan tramititzen diren hirigintzako espedienteak, ikuspuntu teknikotik, informatzeko egiteko orokorra du.

2.- Zehatzago, ondorengo funtzio hauek burutuko ditu:

- a) Foru Aldundiaren edo Hirigintza Sailaren onespenean jartzen diren hiri plangintzako udal agerkaiak informatzea.

- b) Bere kasuan, hirigintza eta lurralde antolamendurako agerkaiak, onespen proposamena egin arte, indarreko legerian ezarritakoaren arabera burutu eta tramitatzea.
- c) Hirigintza Sailak udal eskumenean subrogatu behar duenean, hirigintzako proiektu eta agerkaiak informatzea.
- d) Zerbitzuaren funtzioekin zerikusia duten hirigintza eta lurralde antolamendurako agerkaien tratamendu informatizatua.
- e) Aurrekontu ekitaldi bakoitzaren arabera, Udalek aurkeztutako laguntza edo dirulaguntza eskabideak informatzea.
- f) Hirigintzari buruzko informazioa eskatzeko legebideztatuta dagoen edozein pertsona fisiko edo juridikok, publiko edo pribatuk zuzenean edo idatziz azaldutako kontsulta teknikoei jaramon egitea.

12. artikulua.- Hirigintzako Lege Arloko Zerbitzua.

1.- Hirigintzako Lege Arloko Zerbitzua ondoko espedienteak kudeatzea eta tramitatzea dagokion unitate administratiboan da: hirigintzaren legezkotasuna, hirigintza arauen betearaztea, eskuespen eta baimenen eskaera, hirigintzako eginbeharrak ez- -betetzearen aitortzea berrezartzeko helburua dutenak eta, orokorrean, Foru Dekretu honen arabera, Hirigintzako Teknika Arloak tramitatzeko eskumena ez dituen espedienteak. Era berean, Hirigintzako Lege Arloko Zerbitzuak honako ataza hauek burutuko ditu: Hirigintza gaien Bizkaiko Foru Aldundiari atxikitako eskumenekin zerikusia duten azterketa, analisi eta aholkularitza juridikoak. hirigintza eta lurralde antolamendurako agerkaiak. Ataza horiek ekimen, idazkuntza, betearazpen, kudeaketa, fiskalizazio eta informazio ahalmenei ez ezik, lurralde eta hirigintza antolamenduaren agerkaiak onesteko ahalmenei ere badagozkie.

2.- Hirigintzako Lege Arloko Zerbitzuburuak Hirigintza Erakunde Laguntzaileen Erregistroa izango du bere kargu eta erregistro horren eta Hirigintzako Agiritegien agiri eta inskripzioen edukinaren kopiak eta ziurtagiriak egitea dagokio.

3.- Bestalde, Zerbitzu honek Teknika Arloari eta Hirigintzako Lege Arloari zuzendutako agiriak jaso, aztertu eta banatzeko egitekoa izango du eta beste Sail eta Administrazio batzuekiko espedienteen koordinazioa kontrolatuko du, prozeduraren instrukzioak eskatzen duen informazioa bilduz.

4.- Halaber, Zerbitzu Orokorren Zerbitzuak tramitatu eta kudeatu behar dituen unitate administratiboaren gai orokor guztiak sustatu eta informatzeko organo erantzulea da Zerbitzu hau. Horretarako, unitate administratiboaren gai orokortzat hurrengoak hartzen dira: langileak, kontratazio administratiboa, gastu eta sarreraren aurrekontua burutzea eta betearaztea eta Zerbitzuaren beraren hirigintzako funtzio teknikoaren arloan hertsiki sartuta ez diren beste batzuk.

Hirigintzako Lege Arloko Zerbitzua ondorengo unitate administratiboetan egituratuta dago:

- a) Hirigintza Arauen Betearazte, Kontsulta eta Agiritegiaren Atala.
- b) Atal Jurudiko-administratiboa.

13. artikulua.- Hirigintza Arauen Betearazte, Kontsulta eta Agiritegiaren Atala.

Hirigintza Arauen Betearazte, Kontsulta eta Agiritegiaren Atalari hurrengo funtzioak burutzea dagokio:

- a) Espedienteen irekieran ekimena eta espedienteen barruko eta kanpoko koordinazioa, beste Sail eta Administrazioei informazioa eskatuz.
- b) Hirigintzako Lege Arloko Zerbitzuan instruitzen diren hirigintzako espedienteetan Idazkaritza lanak burutzea.
- c) Ustezko egintzen ziurtapen proposamenak gertutzea.
- d) Agiritegi Historikoaren, Erabaki gabeko Gaien Agiritegiaren eta Indarreko Plangintzaren Agiritegiaren antolakuntza eta kontrola.
- e) Kopia kautoak jaulkitzea.
- f) Hirigintzako espedienteen jarraipen programa informatikoa kudeatu eta kontrolatzea.

- g) Hirigintzako ikuskapen eta fiskalizazio txosten juridikoak jaulkitzea, bidezko jarduketa-neurriak proposatuz.
- h) Arauen garapenerako eta hirigintzako kontsultak azaltzeko proposamenak gertutzea, Euskal Autonomi Erkidegoko edo Estatuko organo eskudunei egiteko direnak.
- i) Hirigintzari buruzko informazioa eskatzeko legebideztatuta dagoen edozein pertsona fisiko edo juridikok, publiko edo pribatuk zuzenean edo idatziz azaldutako kontsulta teknikoei jaramon egitea.

14. artikulua.- Atal Jurudiko-administratiboa.

Atal Jurudiko-administratiboak hurrengo egitekoak izango ditu:

- a) Zuzenbidean Sailaren hirigintzako espedienteak informatzea, beren-beregiko legezko xedapenez aginduzkoa denean edo, aginduzkoa ez bada ere, Zerbitzuburuak, Zuzendari Nagusiak edo Foru Diputatuak komenegarritzat hartu eta hala eskatzen dutenean.
- b) Sailaren hirigintzako egintza administratiboen ofizio berikuskapena eta ezeztapena helburu duten espedienteak informatzea.
- c) Sailaren hirigintzako egintza administratiboen aurkako errekurtsioak informatzea.
- d) Hirigintzako legeria urratzen duten udal egintza administratiboen aurkako administrazioarekiko auzibide errekurtsioen azalpena proposatzea.
- e) Foru Aldundiko Lege Aholkularitzarekin administrazioarekiko auzibide errekurtsioen tramitazioa koordinatzea.

15. artikulua.- Lurralde Argibide eta Azterketarako Zerbitzua.

1.- Lurralde Argibide eta Azterketarako Zerbitzuak ondorengo egitekoak izango ditu: Lurralde Antolamendua eta Hirigintza gaietan Hirigintza Sailaren funtzioei lotuta dagoen oinarritzko kartografia eta gaikakoa eskuratzea, mantentzea, eguneratzea, aztertzea eta hornitzea; Bizkaiko Foru Aldundiko beste Sailen edo, Bizkaiko Lurrealdeari dagokionez, beste Erakundeen arloko helburuak betetzea, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurunearen Informazio Sistema edo izaera antzeko sistemak, Bizkaia sartuta dagoen lurralde eremuetarako ezartzen direnak, sortzea. Zerbitzuak hirigintzako agerkaletan eskatu ahal izango diren gaikako lurralde informazioaren edukinez aholkatuko du, baita agerkai horien garrantzi haztatuaz; eraginaren gaineko azterketak eta balorazioak egingo ditu eta, hala bada bere zuzendaritzapean, hirigintza eta lurraldearen arteko harremana hobetzeko lanak eta jarduketak burutzea proposatuko du. Horretarako, Zerbitzua Zuzendaritza Nagusiaren aholkularitza agerkai teknikoak izango da Bizkaiko Lurralde Azterlanen Erakundearekiko harremanetan.

2.- Lurralde Argibide eta Azterketarako Zerbitzua ondoko unitate administratibo hauetan egituratuta dago:

- a) Dokumentazio eta Kartografiaren Zabalkunde Atala.
- b) Ingurunearen Azterketa eta Argibideetarako Atala.

16. artikulua.- Dokumentazio eta Kartografiaren Zabalkunde Atala.

Ingurunearen Azterketa eta Argibideetarako Atalak ondorengo egiteko hauek ditu bere kargu:

- a) Kartografia lortu eta eguneratzeko egitarauak burutzea.
- b) Lan kartografikoetarako oinarri teknikoak eta berariazko baldintzak prestatzea.
- c) Kontratutako lanen jarraipen kontrolak eta ikuskapen teknikoak egitea.
- d) Agindutako jasoketa topografikoak zuzenean egitea.
- e) Material topografikoa artxibatu eta kontrolatzea.
- f) Kartografi gaiak kopiatu eta banatzea.
- g) Hirigintza Saileko zerbitzu kartografikoen katalogoaren aldizkako zabalkundea.
- h) Ondare kartografikoaren bidez Bizkaia buruzko ezagutza areagotzeko edozein ekintza proposatu eta, hala badagokio, burutzea.

17. artikulua.- Ingurunearen Azterketa eta Argibideetarako Atala Artículo.

Ingurunearen Azterketa eta Argibideetarako Atalak ondorengo egiteko hauek ditu bere kargu:

- a) Ingurunearen aldagaien azterketak eta, lurralde honetan, edozein motakoak izanda ere, hirigintzako azterketaren beharrianak asetzeko agintzen direnak proposatu eta, hala bada, egitea.
- b) Eskura dagoen informazio topografikoa, gaikakoa eta hirigintzari buruzkoa oinarri hartuta, lurralde plangintzari zuzendutako Ingurunearen Informazio Sistema bat gertutzea.
- c) Bizkaiko Foru Aldundiko agindei nagusiekin eta gainerako erakundeen izaera antzeko egitarauekin Hirigintza Saileko informazio sistemak eta jardunbideak koordinatzea.
- d) Gai hauetan, prestakuntzarekin, kontratazioarekin eta laguntza teknikoaren jarraipenarekin zerikusia duten eragiketa guztiak burutzea.
- e) Plangintzaren eta dagozkion eraginen zehaztapenaren zerbitzurako lurralde azterketa zuzendutako informazio beharrianak ikertu, definitu eta proposatzea.
- f) Ingurunearen informazioari dagokionez, hirigintzako agerkaiei eta lurralde antolamendurako agerkaiei erantsita egon behar duten agindeiak proposatzea.
- g) Onesteko Sailari proposatutako hirigintzako agerkaietan eta lurralde antolamendurako agerkaietan dauden txostenak aztertzea.
- h) Orokorrean, hirigintza optimizatzeko edozein ekintza proposatu eta, hala bada, burutzea.

18. artikulua.- Zerbitzu Orokorren Zerbitzua.

1.- Zerbitzu Orokorren Zerbitzuak Sailaren gai orokor batzuen azterketa, analisia, kudeaketa eta aholkularitza juridiko-ekonomikoa bere kargu dituen unitate administratiboa da. Gaiok ondokoei dagozkie: sarrera eta gastuen aurrekontuari, kontratazio administratiboari, langileei, lan antolaerari eta lan metodoei, sailaren informatizazioari, zerbitzu erkideen barru jardunbideari eta, orokorrean, Saileko beste unitate administratiboiei beren-beregi eratzikita ez dauden gai eta jardueri; eta, hori guztia, Foru Aldundiko Zerbitzu Nagusien funtzioei kalterik ekarri gabe.

2.- 10.2 eta 12.4 artikuluetan ezarritako kasuetan, Zerbitzu Orokorrek interesatutako Zerbitzuen proposamenez eta aurretiaz txostena dela burutuko dituzte beren funtzioak; horretarako, zerbitzu horiei beharreko laguntza eta aholkularitza eskatuko diete.

3.- Zerbitzu Orokorren Zerbitzua Aurrekontu eta Gai Orokorren Atala izeneko atal bakarrean dago egituratuta.

19. artikulua.- Aurrekontu eta Gai Orokorren Atala.

Aurrekontu eta Gai Orokorren Atalak ondorengo funtzioak burutuko ditu:

a) Aurrekontuen arloan:

- Sailaren aurrekontuen anteproiektua burutzeko lanak koordinatzea.
- Sailaren gastuen espediente guztien kontrola, tramitazioa eta jarraipena.
- Kreditu aldarazpenen espedienteen azterketa, proposamena eta tramitazioa.
- Gastu eta sarreren aurrekontuari buruzko aldizkako informazioa eta aholkularitza.

b) Langileriaren kudeaketaren arloan, eta Lehendakaritza Sailaren eskurantzei kalte ekarri gabe:

- Gaiari buruz ematen diren egintza administratibo eta xedapen araupetzailak betetzen direla jagotea.
- Saileko langileen urteko oporretako plana antolatzea.
- Onespen eta baimenei buruzko eskabideak, egoera administratiboen aldaketak, gaixotasun edo istripuaren ziozko baxak eta langileriaren arloan sor daitezkeen beste gora-behera guztiak informatu, tramitatu eta kudeatzea.
- Unitate administratiboen langileriaren beharrianak informatu, aztertu eta aurreikustea, funtzionario eta lan-kontratuko langileen lanpostutsak iragarri eta, hala badagokio, dagozkion aldi baterako kontratazioak eta barruko izendapenak proposatuz.

- Sailaren barruko destinoak eta langileen lekualdaketak informatu eta proposatzea.
- Sailari atxikitako langileen prestakuntza eta hobekuntza beharrianak aztertu, informatu eta dagokion proposamena egitea.
- Sailari berariaz atxikitako lanpostuei dagokionez, lan eskaintza publikoa, langileen aukeraketa eta deialdiaren oinarriak aztertu, proposatu eta informatu.
- Antolaluntza eta lan metodoetan aholkularitza teknikoa.

c) Administrazio orokorraren arloan.

- Agirien sarrera eta irteerak erregistratu, agiriak jaso, ireki eta banatzea, baita Sailaren postatruke ofiziala luzatzea ere.
- Prozedura administratiboa eta unitate administratiboen proposamenak, Zuzendari Nagusiak edo Foru Diputatuak aztertu eta ebatzi behar dituztenak, koordinatzea.
- Menpekoen eta atezainen funtzioak zuzendu eta kontrolatzea.
- Aldizkari Ofizialetan eta prentsan argitaratzeko diren iragarkial zentralizatzea.
- Zerbitzuko agiritegi administratiboa.
- Kontratazio administratiboko espedienteak tramitatzea.
- Sailak administratutako ondasunen ondare kudeaketa.
- Sailaren bulegoak, ekipo informatikoak, materiala, bulego ekipoa eta beste baliabide materialak zaindu, mantendu eta ohiko konponketak egiteko neurriak hartzea.
- Sailaren jardunbide arrunterako beharrek hornidura eta zerbitzuak hornitzea.

d) Zerbitzuburuak, Zuzendari Nagusiak edo Foru Diputatuak Sailaren gai orokorretan agindutako beste funtzioak.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA.

- 1.- Bizkaiko Lurralde Azterlanen Erakundea izeneko Foru Erakunde Autonomiaduna Hirigintza Sailari atxikitu da. Erakundea abenduaren 15eko 11/1986 Foru Arauaren bidez sortu da eta bere helburuak azterlanak burutzea eta aipatu Foru Arauaren 4. artikuluan adierazten diren gaiei buruzko aholkularitza eta txostena.
- 2.- Udal Harremanetako Sailari, bere Diputatuari eta Zuzendariei buruzko aipamenak, Bizkaiko Lurralde Azterlanen Erakundearen Gobierno organoen osaketa eta eskurantzak araupetzen dituen Bizkaiko Aldundiko martxoaren 30eko 38/88 Foru Dekretuaren artikuluetan daudenak Hirigintza Sailari, bere Diputatuari eta Zuzendariari buruzkoek ordeztzen dituzte. Dekretu horrek Bizkaiko Lurralde Azterlanen Erakundearen Gobierno organoen osaketa eta eskurantzak araupetzen ditu.

BIGARREN XEDAPEN ERANTSIA.

Lurralde Antolamenduaren arloan, Foru Dekretu honen bidez edota beste Foru Dekretuen bidez eta Foru Aldundiko organo jakinen baterako xedapenen bidez eratzikita ez dauden eskumenak Hirigintza Sailburuak egikarrituko ditu.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

1.- Foru Dekretu honetan ezarritakoaren aurka dauden edo berau kontraesaten duten maila bereko edo beharagoko xedapen guztiak indargabeturik geratzen dira.

2.- Beren-beregi ondoko xedapenak geratzen dira indargabetuta:

- a) Urriaren 8ko 166/1991 Foru Dekretutik, Hirigintza Sailaren Araudi Organikoa araupetzen duenetik, Lehenengo Titulua eta Bigarren Titulua; Hirugarren Tituluak indarrean dirau.
- b) Urtarrilaren 5/1992 Foru Dekretua, urriaren 8ko 166/1991 Foru Dekretua aldarazten duena.

AZKEN XEDAPENA

1.- Foru Diputatuak eskuespena du Foru Dekretu hau garatu eta ezartzeko beharrekoak liritekeen xedapenak emateko.

2.- Foru Dekretu hau "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean" argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

HIRIGINTZAKO FORU DIPUTATUA

Josu Montalbán Goicoechea